

noaua



UZTAILAREN 4AN, JAIEN BIHARAMUNEAN ABIATUKO DA UDAJOLAS

209 gazte eta 30 hezitzaile elkartuko dira aurtengo edizioan / 8

ARGAZKIA: NOAUA!

**Lau urteko
hitzarmena
sinatuko dute
Michelinen / 3**

**Santixabeletako
jai egitaraua,
azken xehetasunekin
eguneratua / 9**

**Energia
berriztagarrien
komunitatea, izen
eta logotipo bila / 13**

**Frantziako Tourra
inguruotatik pasako
da uztailaren 2an
eta 3an / 16**




USURBIL
 O P T I K A

2x1

**PROGRESIBO,
 URRUTIKO
 ETA GERTUKO
 BIGARREN
 LENTE PAREA
 DOAN!**

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



ATXEGA JAUREGIA
JATETXEA

· EGUNEKO MENUA: (asteleheneretik ostiralera) · EGUNEKO PLATERA
 · ASTEBURUKO MENUA · KARTA · RAZIOAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK..

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150




**FUNERARIA
 GONZALEZ**
 EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

*EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
 BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK*

**zerbitzu pertsonala,
 eta familia bakoitzari egokituta**
 ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
 GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN
 ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)



HHI-EPA USURBIL
HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

(ekainaren 19tik 29ra eta Irailaren 1etatik 15era)
 (aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43-943 36 66 08)

• HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.
 Hiritartasun digitalerako Informatika.
 Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko
 joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak.
 Elikadura. Osasuna. Ongi izatea. Geografia. Historia eta
 historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- OINARRIZKO EUSKARA
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHA**

ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

Lau urteko hitzarmena sinatuko dute Michelinen

Mobilizazio ugari egin dituzte azken asteotan: egun osoko grebak, lanuzte partzialak eta manifestazioak.

Ekainaren 19ko greba egunaren ondotik, enpresa zuzendaritzak biharamunean egindako azken eskaintzari zer erantzun erreferendum bidez erabaki zuten hilaren 22an. Michelingo enpresa zuzendaritzakegindako azken

eskaintza babestea onartu dute. Horrek bi ondorio nagusi izango ditu; batetik, azken asteotako protesta ekintzak bertan behera uztea erabaki dute langileek. Eta horrekin batera, lau urterako hitzarmena sinatuko dute.



Asteotan, lan hitzarmen duin baten alde aritu dira borrokan.

Garbigune mugikorra, Zubietan

Ekainaren 29tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da astebetean. Era honetan, etxeko hondakin berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Uztailaren 6an osteguna, garbigune mugikorra Kalezarra eramango dute.

Hauteskundeetarako mahaikideak hautatuak

Asteartean, Usurbilgo udal-txean eginiko osoko bilkuran egin zuten uztailaren 23ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetarako mahaikideak hautatzeko zozketa. Egun horretan lan egitea egokitu zaie egunotan helduko zaie Udaltzaingoaren jakinarazpena.

Euskara errefortzu klaseetarako hezitzaile bila

Euskalduntzeko beharra duten HH5-DBH4 arteko gaztetxoentzei zuzendutako programa udazkenean jarriko da martxan. Hezitzaileak eta irakasleak behar dira. Curriculumak bidaltzeko uztailaren 2ra arteko epea finkatu dute. Helbide honetara igorri beharko dira: zerbitzuak@ttakun.eus

Odol-ematea astebete beranduago izango da

Izatez uztailaren 3an egokituko zen odol-ematea, jaiak tarteko, hilaren 10ean izango da, ohi bezala, 16:30-20:30 artean Udarregi ikastolan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkatea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

'Bake Ametsa'

Duela bi urte ospatu genuen Jose Maria Iparraguireren berrehungarren urteurrena. Hori zela eta, Gorka Hermosa konpositore eta soinu-joleak Donostiako Trinitate plazan kontzertu bat zuzendu zuen Urretxuko bardo edo koplariaren omenez. Foro honetan bertan gogoetatxo bat idatzi nuen efemeride horren gainean.

Gure artista internazionalak duela hilabete juxtu obra berri bat estreinatu zuen Alemaniako Brandenburgoko Atean. Bere musika lan hau 'Peace Dream' (Bake Ametsa) deitzen da. Berlin inguruko Ganbera Orkestra bat, bakarlari bezala errusiar bat eta ukrainiar bat. Berak ere parte hartu zuen une batzuetan. Pieza hori espresuki alemaniarrek eskatu zioten bakearen festibalerako. Lehen ere jo zuen Alemanian, baina oraingo kontzertua oso berezia izan da.

Gorka Hermosa Urretxun jaioa da, Zumarragan hazi eta munduan zehar ibili da beti. Orain, Kantabriako Santander inguruan dagoen Miengo herrian bizi da. Kontserbatoriotik gertu dago. Esku soinu irakasle izaten jarraitzen du. "Irakaskuntza funtsezkoa da niretzat, gaztetxo eta gazteen formazio lanetan asko gozatzen dut". "Soinu jotzaile punkia" da bere autodefinizioa; ez zaio umorerik falta.

'Bake Ametsa' obra berri honetan musikak "jendea, herriak eta kultura elkartzen dituela" frogatu nahi izan du. Horretarako, kanta eta konposizio errusiarak eta



Gorka Hermosa musikariaren obra berriaren izenburua da 'Bake Ametsa'.

ukrainarrak elkartu ditu. Borroka, maitasuna, gorrotoa, gerra eta esperantza adierazten dute. Requiem batez amaitzen da eta esperantza piztu nahi du. Obrak hiru zati ditu: sarrera, borroka eta gerra adierazten duen parte nagusia eta koda bat bukatzeko, non etorkizun hobe baten esperantza agertzen duen. Zine musika, tradizionala eta rocka estiloak erabiltzen ditu.

"Esperantzazko mezuaz amaitu nahi izan dut", dio.

Cervantes handiak esaten zuen: "Quien canta/ sus males espanta. Donde música hubiere/ cosa mala no existiere". Platon eta Aristoteles filosofo greziarrentzat musikaren papera erabakigarria zen pertsonen izaeraren

"BAKEA LORTZEA DA GU GUZTION ERRONKA", DIO GORKA HERMOSA MUSIKARIAK

eraketan, bere borondatea indartu edo ahuldu baitzezakeen.

Hari honi jarraituz, Gorkaren esperentziaren antzekoa bizi dute Daniel Barenboim argentinar-israeldar pianista eta orkestra zuzendariak eta Edward Said intelektual palestinarrak. Bien artean sortu zuten West-Estern Divan Orkestra 1999an.

Israeldik eta Ekialde Hurbileko herrialde arabiarretatik etorritako musikari gazteek beren musika-prestakuntza bizikidetzat eta aberastasun giroan garatzeko tailer gisa hasi zen guztia. Gaur, orkestra hori nazioarteko erreferente bat da musikaren bidez bakea eta tolerantzia bezalako balioen defentsan. Barenboimen esanetan, orkestra bizitzarako eskola bat da. "Bakea lortzea da gu guztion erronka", dio Gorka Hermosak.

"Zuzendariarengandik hasi eta interprete guztiok lan horretan ari gara buru belarri".

IKA-MIKA

Aitor Pikabea Atorrasagasti

TXINGURRI

San Juan bezperaz jakin dut: Aitor joan da. Berri motza bezain krudela.

Borborka datozkit gogoetak: mundua konpondu (irabazi) behar genuen hura; bere enpresari senaz, helburuak zorrozteko aholkatzen ziguna; behin eta berriz horrelakorik ez egiteko esan arren, lagunartean gozatzeko lanpernak biltzeko bere grina; entsaio kontaezinen ostean, txalaparta estreinakoz beheko plazan jo genuen eguna; usurbildarron alde, euskararen alde, NOAUA martxan jartzeko egindako guztia, emandako ordu pila, Aitzagan sartutakoak...

Eta ezagutzen ez ditudan hainbeste.

Aitor, bihotz bihotzez, mila esker. Mila esker hire izatea gurekin partekatzeagatik. Elkarrekin partekatutako egitasmoak ez hituen gauza bera izango hi gabe. Ez adiorik.

Uztailaren 2an, eukaristia Salbatore parrokan

"Hilaren 2an igandez, Santa Isabel egunean, goizeko 11:00etan Salbatore Parrokan Eukaristia ospatuko dugu Usurbilgo zaindariaren ohorez", parrokiatik ohar bidez aditzera eman dutenez.



11:00etan hasiko da eukaristia.

Orbeldi dantza taldeak udako sasoiari ekin dio

Larunbat honetan frontoian arituko dira, eguerdiko 12:30ean. Bestetik, ikasturte berrirako izen-ematea zabalik dago.

Duela bi aste Orbeldi Dantza Taldeak Mikel Laboa plazan eskainitako emanaldiarekin borobildu zuen ikasturtea, baina ez doaz oportetara. Udan festarik festa ibiliko dira. Larunbat honetan esate baterako, Usurbilgo jaien aitzakian frontoian arituko dira eguerdi partean.

Aurreko astean Kalezarren izan ziren, San Juan egunez.

Larunbat honetan aldiz Usurbilgo frontoian arituko dira, eguerdiko 12:30ean. Eta abuztuaren hasieran, Urdaigako festetan ikusiko ditugu. Dantza giro bizian eman diote ongietorria, beraz, estreinatuta berri dugun urtaroiari.

Ikasturte berrirako izen-ematea

2023-24 ikasturterako presakteta lanak ere abian dituz-



Ekainaren 17an agurtu zuten ikasturtea, kalean eskainitako ikuskizun baten bitartez. Qr kodearen bidez, matrikulazioa osatzeko formularioa eskura daiteke.

te Orbeldikoek. Izen-ematea online egin daiteke. Orbeldiren sare sozialetan dituzue horretarako estekak. Bestela,

argazki honi lotutako QR kodearen bidez matrikulazioa osatzeko esteka zabalduko zaizu.

IKA-MIKA

Manifestazioa, Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunean

LASARTE-ORIAKO TRANSMARIBIBOLLO KOLEKTIBOA

Beste urte batez Lasarte-Oriako transmaribibolloak herrian bertan mobilizatuko gara ekainaren 28an, Sexu Askapenaren Nazioarteko Egunean.

Manifestazioa 20.00etan Okendo plazatik abiatuko da, San Pedro festen hasierarekin batera.

Buruntzaldeako hainbat herrietan ere, Sexua Askapenaren Nazioarteko egunean hainbat ekimen antolatu direnaren jakitun gara. Horrez gain, ekainaren

28ko koordinadorak Donostian ere urteroko mobilizazioak deituko ditu.

Lasarte-Oriako transmaribollo kolektiboak Buruntzaldeako herritar guztiei tokian toki antolatutako mobilizazio, ekimen, hitzaldi eta festetan parte hartzeko deia luzatu nahi die. Eta, horrela nahi izatekotan, gurean egingo dugun manifestaziora batzeko gonbita ere egin nahi diegu. Lasarte-Orian ongi etorriak zarete denak!

Gure kasuan, borroka herrira ekarri genuen pasaden urtean lehenengoz eta aurtengoan ere berriro egingo dugu. Garrantzitsua da guretzat hori, gure egunerokotasunean bizi

ditugun inbisibilizazio-egoerei eta askotariko erasoei herrian ere aurre egiteko garaia dela uste dugulako.

Izan ere, Euskal Herrian hirukoiztu egin dira salatutako eraso transmaribollofoboak azken lau urtetan. Lehen ere bazeuden transmaribollo kolektiboaren aurkako gorroto diskurtsoak geroz eta ahots ozenagoz entzuten ditugu; ustezko "zilegatasun", askatasun eta lasaitasun handiagoz erasotzen gaituzte, baita Lasarte-Orian bertan ere.

Ezinbestekoa da diskurtso horiei aurre egitea, autodefentsa praktikan jarri eta gure

artean saretzea. Baina, hau ez da, ordea, biolentzia hori guztia gorpuzten dugunon ardura soilik. Honen aurrean jarrera neutrala izatea konplize izatea ere badela uste baitugu. Honenbestez, gogorarazi nahi genuke, borroka hau ez dela soilik gurea, eta transmaribollo bezala beren burua identifikatzen ez duten baina jarrera neutrala izan nahi ez duten horiei ere mobilizaziora batzeko gonbita luzatu nahi diegu.

Ekainaren 28an, arratsaldeko 20.00etan Okendo plazan ikusiko dugu elkar.

Gora autodefentsa transmaribolloa!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, beheha 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus



San Juan jaien bezperan, Kalezarren egin zituzten asfaltatze-lanak. Uztailaren 4tik aurrera, Usurbilgo hainbat txokotan.

Asfaltatze-lanak egingo dituzte jaien amaieran

Usurbilgo kaxkoan eta Intxorretan egingo dira asfaltatzeak, eta trafikoan aldaketak eragingo dituzte, uztailaren 4tik aurrera. Aldi berean, herri barruko ibilbidea aldatu beharko du Usurbil-Hernani bus zerbitzuak, eta ohiko geralekuaren parean egin beharko ditu geldialdiak.

Santixabel jaien ondoren, hainbat asfaltatze-lan egingo ditu udalak Usurbilgo kaxkoan eta Aginagako Intxorretako autobus geltokian, eta horietakoren batek aldaketak ere eragingo ditu trafikoan. Uz-

tailaren 4ean, asteartean, hasiko dira lanean.

Usurbilgo kaxkoari dagokionez, Kale Nagusian, San Inazio kalean eta Puntapaxen egingo dira. Udalak zabaldu duen informazioaren ara-

bera, hurrenkera honetan arituko dira beharginak lanean:

Kale Nagusia

Kale Nagusiko 10 zenbakitik 35era, gutxi gorabehera, egin-

go dituzte lanak, uztailaren 4an bertan. "Tarte horretan, ibilgailuek ezingo dute pasatu, eta, beraz, 08:00etarako hustu egin beharko da. Donostia-Zumaia ibilbidea egiten duten autobusak, berriz, San Inazio kaleko biribilgunean geldituko dira, lanek iraun bitartean", udal iturriek aditzera eman dutenez.

San Inazio kalea

Kale Nagusiko lanak amaitutakoan -litekeena da uztailaren 4an bertan izatea -, San Inazio kaleko asfaltatze-lanari ekingo diote, "hilerri zaharraren pareko zatian. Autoek bertatik pasatzeko aukera izango dute: langileen bidez bideratuko dute trafikoa".

Puntapax kalea

Behin San Inazio kaleko lanak amaitutakoan, Puntapaxen txanda izango da. "Erdigune-ko biribilgunean hasi, eta Puntapax 6B-ra arteko tartean egingo dute lan. Kasu horretan, mozketak txiki batzuk egon daitezke, eta litekeena da ibilbide alternatiboak hartu behar izatea".

Intxorreta

Usurbilgo kaxkoko lanak amaitutakoan, Aginagako Intxorretako autobus geltokian egingo dituzte asfaltatze-lanak. "Kasu horretan, ez dio trafikoari eragingo", udalak aditzera eman duenez.

Jai egunetan zehar Usurbil-Hernani autobusa ez da kaxkoan sartuko

Sagardo Egunean edota beselako ekimen berezi batzuk egiten diren gertatzen den moduan, Usurbil eta Hernani arteko autobus zerbitzuak ez du geltokirik izango herri barruan. Jaiek iraun artean, ekainaren 29tik uztailaren 3ra, autobusak San Inazioko biribilgunean geratuko dira, hilaren 29an arratsaldeko 15:00etan

hasi eta uztailaren 3ko gauera arte. Hilaren 4tik aurrera, ohiko geltokia berreskuratuko du. "Aldi berean, ordea, uztailaren 4an, asfaltatze lanak direla eta, herri barruko ibilbidea aldatu beharko du autobus zerbitzu horrek, eta ohiko geralekuaren parean egin beharko ditu geldialdiak", ohartarazi du Usurbilgo Udalak.



Ekainaren 29tik uztailaren 3ra, busak ez dira geltoki honetara iritsiko.



Argiak aurreko astean eman zuen gertatutakoaren berri. "Ez digute esango nor elkarriketatu ahal dugun eta nor ez".

"Ez gaituzue isilduko. Utzi Argia astekaria bakean"

Solway Investments Group multinazionalak elkarriketa bat ezabatzea eta 15.000 euro ordaintzea eskatu dizkio Argiari

"Munduko nikel erauzle handienetakoa den Solway Investments Group multinazionalak" egindako eraso salatua du egunotan Argia astekariaren lan taldeak. Haiekin batera zen baita Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeko ordezkariak. Hedabide honek apirila amaieran Guatemalako Paolina Albani kazetariari eginiko elkarriketaren harira gertatu da guztia.

"Prensa Comunitaria hedabidean kolaboratzen du Albanik, eta Mugarik Gabe GKEak gonbidatuta etorri zen Euskal Herrira. Argiarekin hitz egin

zuen, besteak beste, esku artean duten ikerketa bati buruz: Mining Secrets. Nazioarteko 65 kazetari daude tartean; esaterako, Suitzako RTS irrati-telebista publikoko kazetariak, baita The Guardian, Le Monde eta El País egunkarietakoak ere".

"Informatzeagatik kriminalizatuta daude"

Aipatu ikerketa horren baitan, "zortzi milioi dokumentuko filtrazio bat jasota, kazetariak ondorioztatu zuten Suitzako egoitza duen Solway meatzaritza multinazionalak Guate-

malan dituen bi filialek egin dako kutsadura-txostenak ezkutatu dituela, tartean, herrialdeko lakurik handiena den Izabalekoa. Horrez gain, ondorioztatu dute zonaldean bizi diren komunitateen bizi-raupen-laboreei su emateko planak zituela Solwayk, tokiko liderrak erosteko diru-funtsak zituela, Guatemalako Polizia Nazionalari dirua bidaltzen ziola... Hau da, Solway taldeak haren baliabide finantzario eta politikoak erabili dituela Guatemalan haren interesen aldeko erabakiak har ditzaten".

Gai hau Albanik Argiari eskainitako elkarriketan mintzagaia izan zuten "eta azpimarra jarri zuen Solwayk hedabideekin duen jokabidean:

"PUBLIKOKI DIOGU EZ DUGULA ELKARRIZKETA EZABATUKO"

Guatemalako hedabide nagusiak erosiak dituela zioen, eta diskurtso ofizialetik ateratzen diren kazetariak jazartzen dituela. Horretarako ausardia izan dutenek kartzela zigorrak eta heriotza mehatxuak salatu dituzte. Informatzeagatik kriminalizatuta daude".

"Ez dugu elkarriketa ezabatuko"

Elkarriketa horren ostean, "Solway multinazionalak Espainiako Estatuan duen abokatu bulegotik Argiak mehatxutza hartu duena eskatu egin digute: Paolina Albani kazetariari eginiko elkarriketa ezabatzeko eta 15.000 euro ordaintzeko. Horiek egin ezean, kasua epaitegietara eramateko mehatxua egin digute".

Horren aurrean, "publikoki diogu ez dugula elkarriketa ezabatuko", azaldu dute Argiako kideek. "Ez diguzue esango nor elkarriketatu ahal dugun eta nor ez. Ez dizuegu dirurik ordainduko, eta gainera, gaiaz informatzen jarraituko dugu. Kontrakoa lortu duzue".

Kazetaritzaren defentsa

Ohartarazi dutenez, "Argia zigortzen badute, mundu zabalean ingurumenaren defentsan ari direnek eta hedabide guztiek galduko dute. Horregatik, Argiaren komunitateko kideei, gure irakurleei, kazetaritzaren sektoreari eta injustizia ororen aurka ari den orori babesa eskatu nahi diegu, kazetaritzaren independentzia defendatzeko. Salaketa honi oihartzuna emateko eskatzen dugu, eta balio dezala banaka eta isilpean egiten dituzten mehatxuei elkarrekin eta ozen erantzuteko, horrela bakarrik lortuko dugulako gelditzea".

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erretek, ogitarrek, zaziak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-GIK egiten dira
EIRA KUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Gurasoei zuzendutako bileran jende ugari batu zen. Udajolas uztailearen 4an hasi eta 28an amaituko da. NOAUA

Uztailearen 4an abiatuko da Udajolas

4-12 urte arteko 209 gaztetxok parte hartuko dute aurtengo udaleku irekian.

Ate joka ditugu Usurbilgo jaiak, eta honenbestez, baita festen osteko Udajolas ere. NOAUA! Kultur Elkartek Usurbilgo Udalarekin antolaturiko udalekuei buruz argibideak jasotzeko guraso bilera egin zuen aurreko astean Sutegin. Hamarnaka guraso batu zituen hitzorduan nabarmendu zuten, inoizko parte hartzaile gehien izango ditu aurtengo edizioak; 200 partaidetako muga gainditu da, 4-12 urte arteko 209 gaztetxok izena eman dute aurtengoan.

Zenbakion bueltan, bada berrikuntzarik aurtengoan eta baita datozen lau urteotan ere. Usurbilgo Udalak epealdi horretarako NOAUA! Kultur Elkarteari esleitu dio Udajolas zerbitzua eskaintzeko ardura. Orain arte, berrehun gazte hartzeko muga jarria zegoen. Urte honetatik hasi-

ta, gehienezko kopuru hau desagertuko da, bai behintzat esleipen honen indarraldia amaitu artean.

Hezitzaileen kopurua ere nabarmen handitu da

Izen-emate datuak zikloa xehatzen baditugu, Haur Hezkuntzatik 74 izan dira izena eman dutenak, 135 Lehen Hezkuntzatik. Haur Hezkuntzan hamaika talde osatu dira eta 12 laguneko lan taldea. 14 talde Lehen Hezkuntzan, hamasei laguneko taldea arituko da haiekin lanean. Ezin da ziurtatu, baina antolatzaileen esanetan, litekeena da Udajolasen inoiz ikusi gabeko kopuru hau murrizten joatea hurrengo urteotan.

Bistan denez, gainera, hezitzaileen kopurua, haurrenaren pare, nabarmen handitu da; 30eko taldea osatu

da aurtengoan, ia denak usurbildarrak. "Lanean dira, talde bilerak martxan dituzte, programaketak fintzen ari dira", antolatzaileen esanetan. Egunotan Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eskaintako formazioa jasotzen ari dira, besteak beste, etorri berriekin bertako hizkuntzan nola sartu, hori dena kudeatzeko. Hain zuzen, Udajolas udako aisialdi eremuan, lagunartean euskaraz bizitzeko sortua da. Etorri berrientzat lagunartean geure hizkuntzan trebatzen eta bertako bizi-moduan murgiltzen hasteko Udajolasen baliagarritasuna nabarmendu dute antolatzaileek. Horrez gain, aisialdiko jarduerok haurren bizi-kalitate eta garapenean duten

LAU URTEKO HITZARMENA SINATU DUTE NOAUAK ETA UDALAK. AURRERANTZEAN EZ DA PLAZA MUGARIK EZARRIKO

garrantziaz ere ohartarazi zuten Sutegin. Ildo horretan, Zirimara martxan jarri zenez, "norabide eta balore berdinetan" lerrokatzen ahalegintzen ari dira urteotan Udajolas ere.

Txangoak, ostegunetan

Udajolas Usurbilgo festak amaitu eta biharamunean abiaraziko dute, uztailearen 4an, asteartez. Egun horretan hasi eta hilaren 28ra arte eskainiko da zerbitzu hau, asteleheneetik ostiralera, goizez eta lau orduz, 9:30-13:30 artean. Ostegunetan ordea, egun osoko irteerak egingo dituzte eta arratsaldeko 16:30ak aldera amaituko da Udajolas.

Haurrak garaiz eramán

Haurrak garaiz helitzea eskatu zuten goizean eta Udajolas amaitzerakoan pertsona bera joatea haurren bila eta, aldatetarik balego, jakinaraztea. Udajolasera joan ezin dutenetan ere ohartarazi antolakuntzari. Beste edozein zalan-tza edo kezka izanez gero ere gauza bera egiteko deia egin zuten Sutegin bileran.

Azkenik, hilabete amaieran galdetegi bat helaraziko zaie gurasoei. "Eskertuko da betetzea", azaldu zuten antolatzaileek Sutegin eginiko bileran.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA **943 37 17 33- 610 45 93 45**



Oilasko biltzaileen eguna ekainaren 30ean izango da. Goizean goiz abiatuko dira. NOAUA

Makina bat ekitaldi prestatu dituzte

Ekainak 29-uztailak 3

- 11:00-13:00/18:00-20:00 Zi-riborro tailerreko ikasleen pintura eta eskulanak ikusgai Sutegin.

Ekainak 29, osteguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.
- 14:00 Oilasko biltzaileen itzulera eta bazkaria.
- 16:00 Pala txapelketa: kirol egokituen erakustaldia eta binakako finala.
- 19:00 Txupinazoa eta ikurriaren igoera Joxe Martin Sagardia plazan: Gazte eragileek piztuko dute jaietako txupinazoa.
- Ondoren, herri-kalejira, besteak beste buruhandi eta erraldoiakin.
- 20:00 Gazte txupinazoa, txosnen irekiera.
- 23:00-00:30 Dantzaldia frontoian Laket.
- Jarraian, Bertsio Gaua txosnetan.

Ekainak 30, ostirala

- 9:45 Haur eta gazteei harre-rra, Joxe Martin Sagardia plazan.
- 10:00-13:00 Txikieneztat puzgarriak frontoian.
- 10:00-12:00 Gaztetxoentzako erronka (LH5etik DBH2ra).
- 10:00-12:00 Ginkana (LH1-LH4).
- 10:30-11:30 Txutxu tren-eta Artzabalgo helduak.
- 11:30-13:30 Txutxu tren-eta Bordatxo aurretik.
- 12:00-13:30 Buruhandi eta erraldoian emanaldia.
- 13:00 Marianitada txosnetan.
- 13:30 Umeen bazkaria Artzabalen.
- 14:30 Gazte bazkaria txosnetan.
- Ondoren, Aitor eta Galderren aldeko elkartasun argazkia.
- Ondoren, bingo musikatua.
- 15:00-18:00 Ur puzgarriak Kiroldegi aurrean.
- 15:30-17:30 Txutxu tren-eta Bordatxo aurretik.
- 18:00 Dystopia Elektrotxaranga.

- 18:30 Txokolate jatea Artzabalen.
- 19:00 Herri kirolak. Herritarrez osaturiko bi talde lehiatuz: txinga, trontza, aizkora, korrika, giza-proba, harrijasotzea.
- 23:00 Niko Etxart&Hapa-Hapa frontoian.
- Txosnetan: Pleura, La Furia, La Fulana DJ.

Uztailak 1, larunbata

- 11:00 Bola txapelketa Askatasuna plazako bolatokian.
- 12:30 Dantzariak frontoian. Kuxkuxtu Txaranga.
- 14:00 Zikiro jana, Askatasuna plazan.

"JAIETAN ZEHAR, ZIRRIBORRO TAILERREKOEN LANAK SUTEGIN EGONGO DIRA IKUSGAI"

- 17:30 Sokamuturra Udarregin.
- 18:00 Mexikortxo rantxerak txosnetan.
- Ondoren, Laskotxaranga.
- 18:30 Buruhandi eta erraldoiak.
- 23:00 Kontzertuak frontoian: Mihise eta Xiberoots.
- Ondoren, txosnetan: Rukula, Odei Latxironga Dj-a.

Uztailak 2, igandea

- 07:00 Skapaie elektrotxaranga.
- Ondoren, gaupaseroen argazkia.
- 09:00 Esnadeia txistulariekin.
- 12:00 Sokadantza, Joxe Martin Sagardia plazan.
- Ondoren, lore eta salda banaketa.
- 12:00 Triku taldearekin kalejira eta joaldunak.
- 17:00 Esku pilotako finalak.
- 18:30 Runba poteoa eta parodia txosnetatik.
- 19:00 Bertsolariak Joxe Martin Sagardia plazan: Sustrai Colina, Igor Elortza, Alaia Martin eta Eli Pagola. Gai-jar-tzailea: Maite Berriozabal.
- 22:00 Kontzertuak txosnetan: Kohatu eta Lukiek.
- Ondoren, Fresa Morango DJ-a.

Uztailak 3, astelehena

- 09:00 Esnadeia trikitalariekin.
- 11:00-13:00 Toka txapelketa eta Igel Jokoa, Artzabalen.
- 11:00-13:00 Kolore Festa.
- 13:00 Kolore Festako opari-banaketa.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria, Atxegan.
- 15:30 Musa txosnetan.
- 15:30-18:30 Puzgarriak Olanoeneko plazan eta Joxe Martin Sagardia plazan.
- 18:30 Emanaldia Artzabalen: Gure Pakea Dantzan.
- 18:30 Buruhandi eta erraldoiak.
- 19:00 Puro Relajo Artzabalen.
- 19:00 Paella lehiaketa txosnetan.
- 20:00 Disko festa eta karaoke Gaztelekuan.
- 23:00 Maskota erretzea eta traka.
- Ondoren, txosnetan: Amiltzen eta karaokea.

Jai giroa nagusitu zen Kalezarren



Bertsolariak eta trikitilariak bidelagun, San Joan bezperako eskean atera zirenek jai-giroa zabaldu zuten etxez etxe. NOAUA



Sugarren indarra San Joan gauean. NOAUA!



Sua piztu zuten eremu berria, erretzera botatako paperez josia. NOAUA!



Umeen Eguneko lokots bilketan bizi asko gaztetxoek. NOAUA!



Sormena izan zuten adierazpide iturri, Haurren Eguneko tailerretan. NOAUA!



Orbeldikoez Kalezarko jaietan ekin zieten uda parteko emanaldiei. NOAUA!



Dantza giro betean amaitu zituzten Kalezarko jaiak, Dj GorkaMendirekin. NOAUA!



Mus zaletuek ere ekin diete udako jaien errondari Kalezarren. NOAUA!



Sukaldari trebeek parte hartu zuten patata tortilla txapelketan. NOAUA!



Sardina eta sagardo dastaketarekin bapo egin zuten San Joan egunean. NOAUA!



Inork gutxiak ihes egin ahal izan zuen buruhandiengandik. NOAUA!



Txokolate gozo askoa banatu zuten askarirako Haurren Egunean. NOAUA!



Pedro Mari Matxain eta Jose Fernandez, toka txapelketako finalistak. NOAUA!



ARGAZKIA: UDARREGI

Errio bazterrak garbitzen

Udarregiko DBHko zenbait taldeek errio eta ibai ertzak garbituz amaitu zuten ikasturtea. Txokoalden eta Aranerekako parke eraberrituan hondakinak ateratzen aritu ziren. Jasotako zaborra Garbigunera eraman zuten udal langileek.



ARGAZKIA: NOAUA

Zumarte Musika Eskolakoak oporretan dira

Akabo ikasturtea herriko musikarientzat ere. Zumarte Musika Eskola oporretara doa, hilabeteotako lanketa boro-bilduta.

Ekainaren 16ko asteburuan, kontzertuen maratoiarekin agurtu zuen 2022-23 denboraldia. Ekaitza lehertu zen unean hasi zuten belaunaldi ezberdinetako musikari eta abeslariak batu zituen hitzordua frontoian. Musika Txokoa eta Mintzairako ikasleek hasi zuten saioa. Abesbatzako ki-deek eman zioten segida, denetarik instrumentuak jotzen zituzten taldeen txanda izan zen gero.

Herri honek duen musikari harrobi oparoaren erakusle garbia izan zen ekainaren 17ko emanaldia.



ARGAZKIA: NOAUA

Argiteriari buruzko behaketa

Agenda 2030 programaren baitan, Udarregiko LHko ikasleek ikastolako argiteria eta DBHkoek kalekoa behatu dute. Energia aurreztu eta argi-kutsadura murrizteko hainbat konpromiso hartu eta Udalari hainbat eskaera bideratu dizkiote.

Ziortza Gazte Elkarte: "Zuek gabe hau ezinezkoa da"

Ziortzaren udako kanpaldiko azpiegituren muntaketa lanetan jardun du asteburuan ondoko herrikide taldeak Errioxako Peñaloscintosen. "Bide batez, gogorarazi nahi dizuegu kanpaldiaren desmuntaiaren egunean ere zuen laguntza beharrezkoa zaigula, abuztuaren 5ean (larunbata) izango da. Parte hartzeko prest bazaude bidali mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com helbidera zure izen-abizenak, telefono zenbakia eta kotxea ekarri dezakezuen ala ez adierazten. Gurasoekin batera gazteak ere etor daitezke! Honekin hasiera eman diogu... hasi da Kanpaldia 2023!".



ARGAZKIA: ZIORTZA



Energia berriztagarrien komunitatea kooperatiba bilakatuko da laster batean. ARGAZKIA: EBK.

Energia berriztagarrien kooperatiba eratzeko azken urratsak

Plaka fotovoltaikoen instalazio bat lantzen ari dira eta irailean emango dituzte egitasmo honi buruzko xehetasunak.

Udalak energia berriztagarrien inguruko hitzaldi bat antolatu zuen iazko udaberriari. Komunitate bat osatzeko planteamendua ekitaldi horretan bertan egin zen. Geroztik hona, talde eragile bat aritu da lanean eta dagoeneko 30 bazkide batu dira. Komunitate honek kooperatiba izaera hartuko du laster batean eta irailean lehen egitasmoa jarriko dute martxan.

Energia berriztagarrien komunitateko ordezkariak notarizatutik pasa dira baina azken urratsak emango di-

tuzte asteotan, elkarte guztiz legezkatuta gera dadin. Bien bitartean, talde eragileak egitasmo ezberdinak lantzen segitzen du.

Bilerek irekiak izaten jarraituko dute

Iaztik honako bilera denak libreak izan dira, herritar orori irekiak. Legezkatzearekin batera, bilerak bazkideei zuzenduta egongo dira. “Hala ere, gure bilerek irekiak izaten jarraituko dute”, komunitatetik aditzera eman digutenez. Alegia, bazkideek batzarretara joa-

teko deialdia jasoko dute baina oraindik bazkide ez direnek edota interesa duten guztiek atak zabalik izango dituzte.

Elkartearentzako izen eta logotipo bila

Energia berriztagarrien komunitatea formalki osatu orduko, izena eta logotipoa erabakita eduki nahi dituzte. Bazkideei proposamenak egiteko aukera luzatu zaie jada, “baina beste inork pro-

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ELKARTEA BATAIATZEKO IZEN ETA LOGOTIPO BILA ARI DIRA. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA ZABALDU DUTE

posamenik izango balu, gus-tura jasoko genuke”.

Gauzak ondo, irailerako legezkatze-prozesua amaituta eta elkarte berriaren izena eta logotipoa zehaztuta izango dituzte. Behin lan horiek denak eginda, web orri bat martxan jartzea izango litzateke hurrengo urratsa.

Plaka fotovoltaikoen instalazio bat

Kontu formal hauez harago, energia berriztagarrien komunitateko kideek lehen proiektuak abiarazi nahi dituzte. Ikasturte berriarekin batera, plaka fotovoltaikoen lehenengo instalazioari ekingo diotela azaldu digute. Egitasmo bat lantzen ari dira eta honi lotutako zertzeladak irailean eskaintzeko asmoa dute: kokagunea, instalazioaren ezaugarriak eta xehetasun teknikoak.

Bazkidetza kanpaina

Usurbilgo energia berriztagarrien komunitatea 30 herritarrek osatzen dute une honetan. Lagun gehiagorako tokia dago, hala ere.

Taldea handitzeko xedez, bazkidetza kanpaina bat abiarazteko asmoa dute. Hori ere irailean jarriko dute martxan. Bien bitartean, interesa duen edonork komunitatearen eposta helbidera idatzi dezake: info@ebkusbil.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Iturgiñza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

"Kanpoan izen ona du Usurbilek, maila onean aritu garelako beti"

MARTIN LARRAÑAGA ESKUBALOI ENTRENATZAILE OHIA

Urteak eman ditu entrenatzaile lanetan, herri mailako nahiz maila profesionaletako taldeetan. Erretiroa hartzea erabaki duen honetan, bere ibilbidearen errepasso bat egin digu.

Euskal eskubaloi panoraman aski ezaguna da Martin Larrañaga herritarra. Bera Bera eta Aiala Zarautz bezalako talde handietan ibilia da, eta Usurbil KEn ere urte asko egindako entrenatzailea da. Aurten entrenatzaile lanak uztea erabaki du, ordea. NOAUA!rekin izan da bere ibilbidearen nondiknorakoen berri emateko.

Zu elite mailan aritu zara entrenatzaile gisa (Aiala Zarautzen eta Bera Beran). Gaur egun, Usurbil KE taldeko entrenatzailea zara. Elitean ala maila afizionatuan aritu, asko aldatzen al da entrenatzailearen lana?

Lana oso ezberdina da, ez dauka zerikusirik mailak, adinak eta eska dezakegunak. Maila batean ia dena erakustea tokatzen da eta elite mailan errendimendua lantzen dugu. Musikarekin jartzen dut adibide hau hobeto ikusteko. Zuzendaria zarenan, denen lana zuzendu behar duzu eta ezin duzu entsegu edo kontzertua gelditu norbaitek ez duelako pieza ikasi edo ez dakielako jotzen. Gidatu baino ez duzu egin behar kasu horretan. Musika Eskolako irakaslea bazara, berriz, bakoitzari instrumentuak nola jo eta partiturak behar bezala irakurtzen irakatsi behar diozu. Gora iristeko instrumentuak behar bezala menperatu behar dira.



"Nigan konfiantza osoa jarri dute azken urteetan eta hori eskertzekoa da".

Denborarekin, nola oroitzen dituzu Bera Bera eta Aiala Zarautzko garaiak? Laguntzaile edo entrenatzaile nagusi gisa, izan al duzu eskaintzarik azkenaldian? Horrenbeste partida jokatzeko dira, ez dago jakiterik non zabilzan ere. Asteburuko partida prestatzeko aste osoa eman dezaket prestaketari bueltaka eta elitean partidak maizago ere izaten dira, eta beraz, konturatzerako denboraldia amaitu egiten da. Buruhauste han-

diak izaten dira, eta askotan behin partida pasa ondoren. Kudeaketa lana ere ez da erraza izaten, jokalaria guztiak helduak baitira. Bakoitzak bere iritzia du eta oso kontziente

"HASIERAKO URTEETAN BALIO DUDALA ERAKUTSI BEHAR IZAN NUEN"

dira zer erabaki hartu ditugun eta zergatik, eta horrek tentsioak ere sortzen ditu sarri. Zaila da autobus batean sartu eta ordutako bidaia bat egin ondoren galdu eta bueltan etorri beharra. Irabaziz gero, denak pozik, baina hala ez denean heldu egin behar. Kudeatu egin behar egoera guztiak. Zorionez, partida gehiago irabazi ditut galdu baino.

Entrenatzaile gisa, nola definitu-ko zenuke zure burua? Oso gogorra zara zure jokalariekin?

Nik autoritate handirik ez dut jartzen, ikusi besterik ez dago. Ondo ematen zaidan lana dela uste dut, baina beti ni neu izanda nire alde txar eta on guztiekin. Tokatu izan zait balio dudala erakutsi beharra, batez ere, hasierako urteetan. Hortik aurrera jende ona izan dut alboan eta ez diot inori ezer demostratu beharrik izan. Nigan konfiantza osoa jarri dute azken urteetan eta hori eskertzekoa da.

Jokalaria gisa ere aritu zinen hainbat urtez. Gusturago aritzen zinen kantxan jokatzeko ala nahiago duzu kantxaren alboko lana?

Jokalaria nintzenez txoriburu samarra nintzen. Oso gaztetan aritu nintzen jokalaria lanetan eta, jakina, orain lehen baino askoz ere gauza gehiago dakizkit. Ez dakit nik neukan bezalako izaera duen norbait entrenatu beharko banu zer egingo nukeen. Entrenatzaile izateak ere badu hori, jendea taldetik bota beharra eta arazoei aurpegia eman beharra. Jokalaria nintzenez urte arraroak izan zirela dut gogoan eta azkenean, musika eta eskubaloia-aren artean hautua egin behar izan nuen eta musikari heldu nion. Kontzertuak izaten genituen asteburuetan eta eskubaloiko partidak ere arratsaldetan izaten ziren. Horregatik erabaki nuen entrenatzaile lanetan hastea. Umeak entrenatzen hasi nintzen eta partidak goizez izaten dira.

→ Zentzu horretan, berdin zitzaidan goizean lo gutxi eginda kiroldegira joatea. Azkenean, begira non amaitu dudana. Inoiz ezin jakin.

Denok ditugu erreferenteak. Entrenatzaile gisa zein da zure ibilbidean gehien eragin dizuna?

Erreferentziatzko entrenatzaile batzuk izan ditut, baina ez nuke jakingo bat esaten. Denetatik ikasten da zerbait. Kudeaketan pertsona batzuetatik asko ikasten da eta beste batzuei maila teknikoago batean.

Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikitik. Noiz egin zenuen eskubaloiairen aldeko hautua? Noiz hasi zinen eskubaloia serio hartzen?

Txirrindularitza nator ni. Bizikletan ibiltzen nintzen herriko txirrindulariekin, baina Beñat Lizasoren istripuaren ondotik Usurbilgo Txirrindulari Eskola desagertu egin zen. Noraezean geratu ginen momentu hartan. Ordurako bannituen eskubaloian ibiltzen ziren lagunak eta kirola egiten jarraitu nahi nuenez, kiroldegirako bidea hartu nuen. Hala hasi nintzen eskubaloian.

Elitean lehiakortasuna da nagusi. Usurbil KE taldekoen mailan ere, lehiakortasun handia dago taldekideen artean ala lagun giroan entrenatzen al duzue?

Ez dago lehiakortasunik publikoaren aldetik. Pertsona konkretuak izaten dira arazo, normalean, ez horrenbeste taldeak. Aldageletan ere izaten dira gorabeherak, baina ez normalean modu sano edo osasuntsu batean eramateko moduko egoerak izaten dira. Oso noizbehinka tokatu izan zait kudeaketa oso osasuntsuak egiten ez dituzten jokalariekin tratatu beharra, baina nire filosofia beti izan da eztabaida bat izan eta aurpegi txar bat behin ikustea, egunero norbaiten aurpegi txarrak ikusi beharra baino. Erabaki ez oso ederrak ere hartu behar



"Txirrindularitza nator ni". Gaur egun ere, maiz ikusiko duzue bizikleta gainean.

izaten dira batzuetan. Momentu horretan ez naiz inoiz bakarrik joaten, esandako hori zer izan den azter dezan. Ez dut erabaki pertsonalik hartzen, baina jokalariek hala balitz bezala hartzen du askotan. Nik taldearentzat onena bilatu behar dut, ez lagun onenak ditudan kantxan izan eta horrenbeste gustatzen ez zaizkidanak kanpoan utzi. Hala ere, normalean talde kiroltan elkarri lagundu beharra izaten da eta postu berean jokatzeko dutenek oso harreman ona izaten dute.

Eta nolakoa da beste taldeekiko harremana? Kanpotik ikusita, eskubaloiairen munduan giroa sanoa dela ematen du. Hala al da?

Usurbilen talde onak izan ditugu gehienetan, eta talde berak maila guztietan finala jokatzeko du ia urtero. Adin-tal-

deen arabera izaten denez, aurkariak ere beti berdina izaten dira. Bera Beran nabilenean, gure arerio zuzena Rocasa izaten zen, eta Aialan Logroño eta Beti Ona. Lehia ez sano horiek futboleko kontuak direla esango nuke, eta kirol horretara mugatzen direla, batik bat.

Eskubaloian, Usurbilek tradizio handia du. Kabilia garrantzitsua izan da. Hemendik kanpo, Usurbil KE eskubaloia taldeak bere prestigioa du, ezta?

Gipuzkoan eta Euskadin izen handia du Usurbilek maila onean aritu garela beti. Usurbildarren bat beti egoten da elitean jokatzeko umetan herriko taldean hasita. Euskaditik ateraz gero, ez da horren ezaguna. Euskaldunok fama izan dugu aspalditik gorputz gehiagoko jokalariek izateagatik, baina azken ur-

"BIZIKLETAN HASI NINTZEN. ESKOLA DESAGERTZEAN, ESKUBALOIRAKO BIDEA HARTU NUEN"

"HAU IZAN DA NIRE AZKEN URTEA. ENTRENATZAILE LANEI AGUR ESAN DIET JADA"

teetan uste horiek ere aldatu egin dira.

Eskubaloitik bizi al daiteke bat? Zure helburuetako bat da ala ez diozu horri garrantziarik ematen?

Hau izan da nire azken urtea. Entrenatzaile lanei agur esan diet jada. Eskubaloia entrenatzaile izanda horretatik bizitzeko aukera badago, oso talde onak entrenatuz gero. Hala ere, gauza askori ezetz esan beharra dago. Maila profesionalean dabiltzan oso talde gutxi daude eta talde batean entrenatzaile batek ez ditu 40 urte ematen. Argi izan behar duzu zer nahi duzun eta hori borrokatu. Punta-puntako talde asko kilometro askotara daude eta prest egon behar da kanpora joateko ere: Kanariar Uharteak, Ciudad Real... dena ez da diru kontua ere. Bizipenak ere ematen dizkiote pertsonari.

Laburrean

Zenbaki bat: 3.

Kolore bat: Beltza.

Kirolari bat: Phil Jackson.

Kantxa bat: Aritzbataltalde (Zarautz).

Film bat edo telesail bat: 'The last Kingdom' telesaila (Netflix).

Liburu bat: 'El valor de la atención' (Johann Hari).

Abesti bat: 'The prisoner' (Iron Maiden).

Sare sozial gustukoa?: Instagram.

Usurbilgo txoko bat: Etumeta gaina.

Santixabelak ala Sargardo Eguna? Aita ala ama?

Oporretarako toki bat: Val d'Azun (Frantzia).



Uztailaren 2an eta 3an Usurbil ingurutik pasako da Tourra. ARGAZKIA: AIURRI

Tourra inguruotatik igaroko da datozen egunetan

Tourrak zeharkatuko dituen bide guztiak lau ordu lehenagotik itxita egongo dira.

Frantziako 110. Toureko bigarren etapa, uztailaren 2koa, Gasteizen hasi eta Donostian bukatuko da. Herriz herri iritsiko dira parte hartzaileak Gipuzkoa hegoaldeko Beterri Buruntzara; Andoain, Urnieita, Hernani eta Astigarraga zeharkatuko dituzte 14:00ak pasatxoan. Helmuga, aipatu moduan, hiriburuan kokatua egongo da.

Biharamunekoa, hilaren 3koa, Bizkaiko Amorebietan hasi eta Lapurdiko Baionan amaituko dute txirrindulariek. Kasu honetan, Gipuzkoara kostaldetik sartuko dira, Mu-

triku aldetik. Kostaldea utzi gabe helduko dira Orioraino 13:30ak aldera, eta handik gorantz Orioko Bentara igo eta Igeldo alderako bidea hartuko dute. Donostia zeharkatuko dute 13:50 aldera bigarren egunez txirrindulariek eta hortik Pasaia aldera joko dute segidan. Adi, Tourrak zeharkatuko dituen bide guztiak lau ordu lehenagotik itxita egongo dira. Informazio gehiago, letour.euskadi.eus atarian. Etapa hauek ikustera joateko asmoa duenak ikurrina errepidera ateratzeko deia egin du Gure Eskuk.

Donosti Cup, Haranen


Uztailaren 3tik 9ra jokatu den nazioarteko gazteen futbol txapelketako hainbat neurketa Haranen izango dira. Herri honek ere ordezkariak izango du nazioarteko txapelketa honetan. Usurbil FT-k lau talde osatu ditu hitzordu honetan parte hartzeko. Haiek batera, nazioarteko hainbat talde lehiatuko dira txapelketa

honetan; besteak beste, Andorra, Australia, Belgika, Txile, Txina, Frantzia, Euskal Herria, Honduras, Japon, Jordania, Mexiko, Peru, Portugal, Mendebaldeko Sahara, AEB, Uzbekistan eta herrialde gehiagotakoak.

Informazio gehiago donosticup.com atarian eskura daiten.

Palako finala eta kirol egokituen erakustaldia

Jaien hasieran jokatu da pala txapelketako finala. Bide batez, kirol egokituen dabil-tzanen arteko partidak ikusteko aukera paregabea izango dute frontoira hurbiltzen diren guztiak. Ekainaren 29an osteguna, arratsaldeko 15:30ean hasita.



Ekainaren 29an, 15:30ean hasita.

Usurbilgo 50. Pilota Txapelketako finalak

Usurbilgo Pilota Txapelketako garaile berrien izenak igande honetan ezagutuko ditugu.

Uztailak 2 igandea

17:00 Usurbilgo frontoian:

Kadeteak:

Alejo-Errasti (Pagazpe)
Aburuza-Pagola (Añorga)

Nagusiak:

Orbegozo-Albeniz (Orio)
Olaizola-Aranguren (Eple-Orereta)
Antolatzailea: Pagazpe.

Ostiral honetan Dema plazan, Herri kirol desafioa

Herritarren arteko herri kirol desafioa izan zen iazko jaie-tako berrikuntza nagusietako bat. Arrakasta handia izan zuenez, errepikatzea erabaki dute. Partehartzaileak ordukoak izango dira eta honakoan emakume gehiago arituko dira plazan.

Partehartzaileen artean bi talde arituko dira lehiatzen eta proba hauek osatu beharko dituzte: txinga, trontza, aizkora, korrika, giza-proba, harri-jasotzea.

Ekainaren 30ean ostirala, 19:00etan Dema plazan.

Toka txapelketa eta igel jokoa Artzabalen

Uztailaren 3an astelehena, jubilatuen egunean amaituko dira herriko festak. Egun osoko egitaraua prest izango dute eta kirol jarduerarik ez da faltako. Toka txapelketa eta igel jokoa esate baterako. Eguerdiko 11:00etan hasi eta 13:00ak bitartean jokatu dira, Artzabalen atarian.

Bola txapelketa

Askatasuna plazako bolatokia jokatu da bola txapelketa. Uztailaren lehenean, eguerdiko 11:00etan hasita.

Eskubaloia Eskolan izena emateko epea itxear da

LH5 eta LH6ko haurrei zuzenduta dago Eskubaloia Eskola. Entrenamenduak astean behin izango dira, asteartean 18.30etik 20.00etara, eta hilabetean partida bat edo bi.

Urteko kuota 50 eurokoa izango da. "Anai-arreba bat baino gehiago izanez gero, 25 euro ordaindu beharko ditu bigarren jokalaria eta ondorengoak".

Izen-ematea ekainaren 30ean amaituko da. Esteka honen bitartez egin behar da: <https://labur.eus/hhPpV>

MERKATU TXIKIA

ERREBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bitziteko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako: 636 711 514.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazio gehiago Elizalde inbiliarian 943 35 35 34

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera deitu).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Datorren ikasturteari begira haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. Egurdiko 12:00etatik 14:00etara asteleheneretik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

- Astelehenero 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz lanean aritzeko pertsona baten bila gabilta. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. Telefono zenbakia: 943 366 710

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? 680483164.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, Olarrondon. 626 686 036.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperimentzia. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketak egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis)

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Ez dauka markarik. Pertsonalizatuta egindako bizikleta da eta egoera oso onean dago. 644 619 358.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzguna	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 29	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 30	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 01	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 02	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 03	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astearte, 04	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteazkena, 05	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Osteguna, 06	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 07	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 08	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 09	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURI ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Amaiur!

Etxeko txikiak 8 urte egingo ditu ekainaren 27an! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu, oso harro gaude zutaz! Etxeko guztien partez muxu erraldoia

HILDAKOAK



Aitor Pikabea Atorrasagasti
Ekainaren 23an hil zen, 53 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitarteok; hiru bide dituzu NOAUaren bidez zorientzeko:

Internet eta papera

noaua.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://noaua.eus/zorionagurra/> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta dagokion NOAUA astekarian. Oharra: astelehen arratsaldetik aurrera iristen direnak hurrengo astean plazaratuko ditugu.

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria/auzoa, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz NOAUaren bulegora (Bordaberri 3, behe) edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 29

USURBIL Jaiak

Jaien hasiera eta oilasko biltzaileen eguna Santixabel jaietan. Egitarau osoa aldizkari honen 9. orrialdean aurkituko duzu.

OSTIRALA 30

USURBIL Jaiak

Umeen eguna Santixabel jaietan. Egitarau osoa 9. orrialdean.

LARUNBATA 01

USURBIL Jaiak

Santixabel egunaren bezpera. Egitarau osoa 9. orrialdean.

IGANDEA 02


USURBIL Jaiak

Santixabel eguna. Egitarau osoa 9. orrialdean.

ASTELEHENA 03

USURBIL Jaiak

Jubilatuen eguna eta jaien amaiera. Egitarau osoa 9. orrialdean.



Igerilekua eguerdiko 12:45ean itxiko da larunbatetan eta jai egunetan.

Udako ordutegia martxan izango da hainbat zerbitzutan

Bus-taxia

Uztailean goizez bakarrik eskainiko da Bidez Bide zerbitzua, astelehenetik ostiralera, uztailearen 3an, 25ean eta 31n izan ezik, jaiegunak baitira; 7:30ean, 10:30ean eta 13:30ean abiatzen diren zerbitzuei eutsiko die bus-taxiak; arratsaldekoak (15:30/19:00) bertan behera geratuko dira.

Abuztuan eten egingo dute zerbitzua.

Irailaren 1etik aurrera ohiko ordutegian jarriko dute berriz martxan.

Kzgunea

Uztailean goizez, 09:00-13:00 artean eta abuztuan itxita egongo da.

Sutegi udal liburutegia

Irailera arte udako ordutegia izango du Sutegi udal liburutegiak.

Astelehenetik ostiralera irekiko dute soilik (larunbatetan ez), 9:30-14:00 artean.

Uztaileko astelehenetan ere arratsalde partean, 17:00-19:00 artean.

Oiardo Kiroldetgia

Uztailean eta abuztuan, ordutegi hau izango du:

- Lanegunak: 7:00-13:00/15:30-20:15 (Igerilekuaren itxiera ordua: 12:45/20:00).

- Larunbatak, igandeak eta jai egunak: 9:00-13:00 (Igerilekuaren itxiera ordua lehenago, 12:45ean).

Runba poteoa

Jaietako igande arratsalderako ekimen berri bat iragarri du gazte mugimenduak; Runba poteoa eta parodia txosnetatik. "Etorri kuadrilarekin mozorrotuta", gonbidatu dute. Usurbilen bizi izan den zarauztar baten ideia izan da honako hau. "Euskal abesti batzuk runba estilora moldatu eta festetan jotzeko aukera eskaini genion. Berak eta bere lagun musikari batzuk prestatu dituzte". Kanta hauek guztiak "hamarkadaz hamarkada antolatu dituzte". 70. hamarkadatik gaur arte. "Parte hartu nahi duen orori hamarkada bakoitzean bereizgarria izan daitekeen ikurren bat hautatu eta horretaz mozorrotzea proposatu nahi diegu". Herrian barrena bira egingo dute, "taberna taberna". Geldialdian jolasak, ekitaldiak... egongo dira". Ekimen honen bidez, "belaunaldiarteko harremana sendotu" nahi dute.

Atxi
Partenarietateak
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

txirriStra
TABERNA
• PLATER KOMBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

noa
jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noa

www.noa.eu

AITZAGA
T A B E R N A

gora
San Faxe Beloki!

ASTIGARRAGAN PISUA
279.000€

kw BELOKI
KELLERWILLIAMS

IGELDON ETXEA
1.255.000€

BEASAINEN PISUA
120.000€

LASARTE-ORIA PISUA
199.000€

**INTXAURRONDON
OSTALARITZA LOKALA**
220.000€



**ESKATU ZURE ETXEBITZAREN BALORAZIOA
GASTURIK ETA KONPROMEZURIK GABE
Profesionaltasuna eta gertuko tratua!**



Ana I. Flores Rolin
686 55 41 45
anisabel.flores@kwspain.es
ana.kw.beloki



Joseba Goenaga
678 63 69 66
joseba.goenaga@kwspain.es
josebagoenaga_kwbeloki



Edertu zaitez!

AUTOMAKILLAJE IKASTAROA

- PERTSONALIZATUA
- ZURE BEHARREN ARABERAKOA
- PRAKTIKOA
- ADITUAREN AHOLKUAK

astelehena

ordua taldekideek zehaztuko dute

4

laguneko taldeak



50€

horietatik 30€
ARTDECO
produktuak
erosteko,
iraungitze-datarik
gabe

@enarestetika · enarestetika.com
943 571 680 · 620 852 875
Muna Lurra 2, behea, Usurbil

snar
ESTETIKA

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

**BERRIA!
GOLD LOKATZAK**

secretos™
del agua

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Arkeneko produktu eta teknikak!